



SAILBURUA  
LA CONSEJERA

**AGINDUA, 2018ko URRIAREN 5koa, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ BERMATZEN DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZAREN GIZARTE EKIMENEN SEKTOREAN 2018KO URRIAREN 9 ETA 10ERAKO DEITUTAKO GREBAK DIRAUEN BITARTEAN ERKIDEGOARI EMAN BEHAR ZAIZKION FUNTSEZKO ZERBITZUAK BETEKO DIRELA.**

ELA, CCOO, STEE-EILAS, LAB eta UGT sindikatuek greba deitu dute 2018ko urriaren 9 eta 10erako, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetan.

Deitzaileen arabera, honako hauek dira grebaren helburuak: "1. Langileriaren lan baldintzak defendatu eta hobetu eta lan hitzarmen berri bat lortzea. 2. Lan Hitzarmena 2009koa da, eta hitzarmena indarrean egoteko epealdia agortu zenetik mahai negoziatzaileko hainbat bilera egin ditugu (30etik gora), eta kontzentrazioak, eta eskaera ugari egin dizkiegu lau patronalei (Kristau Eskola, Aice-lzea, Elizbarrutiko Ikastetxeak eta Ikaegiltza), baina ez dute inolako fruiturik eman". Grebara deitutako kolektiboak honako hauek dira: "Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimeneko lan hitzarmena aplikatzen zaien langileak (10.000 langile inguru)".

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten du greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, eta informazio-askatasuna, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea baliatzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako funtsezko eskubideekin, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, nahitaezkoa da neurri egokiak ematea Erkidegoarentzako ezinbesteko zerbitzuak bete daitezen, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere edukirik gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da ezen, funtsezko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin, proportzionaltasunaren printzipioa zorroztasunez aplikatuz hartu behar dela, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, "egokitasun-judizioa" deritzona; egitatea aztertuta, ondorioztatu izana ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, hau da, "beharrizan-judizioa" deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako



eragiten diren kalteak baino, hau da, "proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta". Konstituzio Auzitegiak zenbait alditan adierazi du haren iritzia gai horren inguruan, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu erkidegoarentzat funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Alegia, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela – amore eman, Goi Auzitegiaren hitzetan–, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan; hau da: alde batetik, bi egun osoko denbora-eremua, urriaren 9an eta 10ean hain zuzen, eta, bestetik, jarduerakoa, gizarte ekimeneko ikastetxeen irakaskuntza itunduaren hezkuntza-eremua.

Kontuan hartu behar da 2018. urte honetan beste bi greba-deialdi egin direla: lehenengoa martxoaren 20an, egun osoko greba; eta bigarrena maiatzaren 15 eta 16an, bi egun osokoa.

Adierazitakoa dela-eta, lehenik eta behin, kontuan hartzekoa da hezkuntza funtsezko eskubidea dela, eta Konstituzioaren 27. artikulua halakotzat jotzen duela, eskubide hori zentzu zabalean harturik; hau da, pertsonen bizitza osoan indarrean dagoela aintzat hartuta, eta, hortaz, existentziaren lehen urteak ere barne hartzen dituelarik, non hezkuntza-zerbitzua ematea beharrezkoa den haurren garapen integrala ahalbidetzeko. Unibertsitate-hezkuntza ere barnean sartzen da, Konstituzio Auzitegiak 26/1987, FJ 4., a) epaian adierazi zuen bezala: "hezkuntzarako oinarriko eskubidearen tratamendua, unibertsitate-arloan, ez da geratzen ezinbesteko zerbitzuen zehaztapenetik kanpo ikastetxe horietan lan egiten duten langileak greba-eskubideaz baliatzen diren kasuan. Horren ondorioz, ezin da baieztatu funtsezko zerbitzu horiek zehaztea Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua (Grebarako eskubideaz) kontrakoa dela."

Aintzat hartu behar da, gainera, greba-deialdi honek ikasleei zuzenean eragiten diela. Bada, hauek dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurreko deialdietan emandako datuak:

- a) Haur Hezkuntzako 1. zikloa (0-2 urte): 6.147 ikasle
- b) Haur Hezkuntzako 2. zikloa (3-5 urte): 17.391 ikasle
- c) Lehen Hezkuntza: 39.232 ikasle
- d) Bigarren Hezkuntza: 29.783 ikasle
- e) Batxilergoa eta Heziketa Zikloak: 25.352 ikasle

Ondorioz, orotara 117.905 ikasleri eragingo dio grebak, gutxi gorabehera.

Bestalde, jokoan dauden eskubideen garrantzia bermatuko duten gutxieneko





zerbitzuak ezartzeari dagokionez, nahitaezkoa eta beharrezkoa da ikastetxeak irekita egotea ikasleentzat, greba egiten ez duten langileek lanerako eskubidea –Konstituzioaren 35. artikuluan onartua– gauzatu ahal izan dezaten. Horregatik, gobernu-agintaritzak gutxienerako zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea, gutxienez grebarako eskubidea ez baliatzea erabakitzen duten langileen sarrera bermatze aldera, baita ikasleen sarrera ere; hain zuzen ere, zentroak irekiko ez balira, lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa guztiz eta bidegabeki eragotziko litzatekeelako.

Unibertsitatez kanpoko ikastetxeak irekitzeko beharrian bakarra ez da «ikastetxea irekitzea» jarduera material gisa; aitzitik, irakaskuntza-egitekoaren edo jardueraren ezinbesteko «funtzionamendu-errutinak» gauzatu behar dira (gutxienerako zerbitzuen izaera murriztaileagatik eskatzen direnak), ikastetxe horietan instalazioak edo materialak zaintzeko eta ikasleak zaintzeko egiten direnen artean; izan ere, ikastetxe haietara ikasle adingabeak joaten direnez –adingabeei ezin zaie helduei eskatzen zaien heldutasun-maila bera eskatu haien jardunean, eta horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ezin da guztiz baztertu (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko Epaia)–, berebiziko arreta eskatzen da ekiditeko modukoak diren arriskuak ezabatzeke edo murrizteke, instalazioak behar bezala edukiz eta mantenduz, baita zaintzeko eta kontrolatzeko lanak eginez – irakaskuntza- edo prestakuntza-jarduerak garatzen diren egoitza batean adingabeak edo ezgaiak zaintzeko ardura hartzen bada [...] arreta berezia jarri behar da haiek nozitu lezaketen edozein lesio edo kalte saihesteko –Valentziako Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren urriaren 23ko Epaia, 1526/2009 zenbakikoa (Administrazioarekiko Auziak, 1. sek.)–. Horren ondorioz, ikastetxe horietan, gutxienerako zerbitzu gehigarri gisa, aginte- eta/edo zuzendaritza-ahalmena duten pertsonak egotea ezarri beharko da, prebentzio eta segurtasunerako arreta ikastetxe haietara joaten diren adingabeentzat ikuspuntu objektibo batetik arriskutsuak izan litezkeen guneetara zuzentzeko ardura beren gain hartu dezaten.

Horiek guztiak ikusita, agindu honetan zehazten dira gutxienerako zerbitzuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta alor horretan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Izan ere, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrianeko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartze neurriak har ditzake».

Arau horretan –zeina konstituzionala baita (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11])–, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluaekin bat etorriz, bertan honako hau ezartzen da: «Eskubide horren erabilera



arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu erkidegoarentzako funtsezko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko». Azken batean, gobernu-agintaritzari ahalmena ematen zaio edozein motatako berme-neurriak hartzeko, betiere greba denean ezinbesteko zerbitzuei eusteko, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei zerbitzuok bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta, horrenbestez, Jaurlaritzaren erabakia doakien zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten, entzunaldia eskaini diegu grebarako deia egin duten sindikatuei, eragindako enpresa-elkarteei eta Hezkuntza Sailari.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremani buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio behar diren neurriak ezartzeko eskumena, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidez baliatzen direnean autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, honako hau

## **EBAZTEN DU:**

**Lehenengoa.-** Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen sektoreko langileek 2018ko urriaren 9 eta 10erako deialdia egin den grebarako eskubidea balia dezakete, betiere ondoren adierazten diren funtsezko prestazioak eta haien ondoriozko gutxieneko zerbitzuak atxikita:

Zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, ikastetxe eta horiei lotutako zentro publiko bakoitzeko: zuzendaritza-taldeko pertsona 1 eta mendekoen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.

**Bigarrena.-** 1. Zerbitzu horiek greba egin behar ez duten langileek emango dituzte, ahal izanez gero.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak, eta langile horiek txandaka bete behar dituzten eginkizunak. Nolanahi ere, aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.





Honako hurrenkeran izendatuko dira gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten pertsonak: lehenengo zerbitzu hau eman ohi duten eta grebarekin bat egingo ez duten langileei deituko zaie; modu horretan gutxieneko zerbitzuak betetzeko adina langilerik ez balego, greba egiteko asmoa duten langileen artean izendatuko dira gutxieneko zerbitzua eman beharrekoak.

**Hirugarrena.-** Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu haiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketa edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

**Laugarrena.-** Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

**Bosgarrena.-** Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.

**Seigarrena.-** Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, Ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedaturikoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2018 urriaren 5ean.

  
  
**MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LOPEZ**  
**LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA**